

I B ERANSKINA**INGURUMEN-INPAKTUAREN BANAKAKO EBALUAZIOA EGIN BEHAR DUTEN LAN ETA JARDUEREN ZERRENDA****1.- Garraio-azpiegiturako proiektuak.**

1.1.- Autobide, autobia, bide azkar eta ohiko errepideak eraikitzea. 2 km baino luzera handiagoko saihebidetarako eta ibilbide-aldaketak, baldin eta lurzoruen kalifikaziorik ez badago ingurugiro-eraginaren ebaluazio bateratua pasa duten lurralde-antolamendurako planetan.

1.2.- Trenbideak, garraio-eraz aldatzeko instalazioak eta garraio-era desberdinetarako terminalak eraikitzea. Tranbiak, aietiko eta lurpeko metroak, zintzilikako lineak edo antzeko lineak, batik bat edo nagusiki bidaiariak garraiatzeko balio dutenak.

Trenbideen ibilbide-aldaketak, saihebidetarako eta bikoizketak, urbanizatu ezinako lurrian 2 km baino gehiagoko luzeran baldin badaude, ingurugiro-eraginaren ebaluazio bateratuko jardunbidearen menpe jarritako lurralde-antolamendurako planetan lurzoru-kalifikaziorik ez dutenean.

1.3.- Merkataritzarako eta arrantzarako portuak, nabigazio-bideak eta kirol-portuak. Itsaso/lehorreko jabari publikoan oraingo azaleraren %50eko okupazioa edo handiagoa izango duten edo 5 ha-ko okupazioa baino handiagoa izango duten portuetako hedapen edo sarbideak.

1.4.- Aireportuak, horietarako sarbideak barne, eta horien hedapenak, oraingo azaleraren %50eko okupazioa edo handiagoa dagoenean edo 5 ha-ko okupazioa edo handiagoa dagoenean.

2.- Azpiegitura hidrauliko, uraren kudeaketa eta tratamenduko eta ur-jabari publikoko jardueretako proiektuak.

2.1.- Goiko gaineraino 10 m-ko altura baino handiagoa duten edo 100.000 m³ baino gehiago bil ditzaketan presak.

2.2.- Presak handiagotzea, ur-laminaren azalera handiena %25 edo gehiago hazten denean edo 5 ha baino handiagoa denean.

2.3.- Ibaiak bideratzeko lanak eta ibilguaren aldaketak, egoera naturaleko ibilguan gutxienez 250 metrotan eragiten denean.

2.4.- Zentral hidroelektrikoak eta horiei erantsitako instalazioak.

2.5.- Ur-baliabideak ibai-arro batetik bestera eramateko obrak, eramandako uraren bolumena urteko 10 milioi metro kubikokoa baino handiagoa denean, tutueriaz eramaten den edateko ura salbu.

2.6.- Hondakin-urak tratatzeko plantak, 91/271/ CEE Arteztarauaren 2. ataleko 6. puntuak definitutakoaren arabera ahalmena 100.000 biztanle-baliokide baino handiagoa denean.

2.7.- Lur azpiko uren aprobetxamendua edo akuiferoen karga artifizia, deskarga naturala gutxienez bere eragineko ibai-ibilguen agorraldiko emarien %50ekoa denean edo zona heze garrantzitsuetan ur-lamina zein zona kriptozeetako gainazal azpiko maila piezometrikoa mantentzearekin zuzeneko zerikusia dutenean, beti ere atalase hauetakoren bat gainditzen denean:

- a) urtean ateratzen den bolumena akuiferoaren urteko kargaren %25 baino handiagoa denean.
- b) jadanik ateratako uraren bolumenak akuiferoaren urteko karga-bolumenaren %50 gainditzen duenean eta aprobetxamendu berriak urtean gutxienez karga horren bolumenaren %10 gainditzen duenean.
- c) karga artifizialak, akuiferoaren urteko karga naturalaren %50 gainditzen duenean.

3.- Energia sortu, garraiatu eta banatzeko azpiegitura-proiektuak.

3.1.- Zentral termikoak eta 50 MW-eko edo gehiagoko potentzia termikoa duten beste erreketak instalazioak. Halaber zentral nuklearrak eta beste errektore nuklearrak, zentral edo errektore horiek eraistea edo behin betiko zerbitzutik kanpo uztea barne. (Hemendik kanpo geratzen dira fisio-materialak eta material emankorrak produzitu eta aldatzeko ikerketa-instalazioak, etengabeko iraupen termikoan potentzia maximoa 1 KW baino handiagoa ez bada).

3.2.-

- a) Irradiatutako erregai nuklearrak berriz prozesatzeko instalazioak.
- b) Honako lan hauetarako diseinatutako instalazioak:
 - erregai nuklearra produzitu edo aberastekoak.
 - irradiatutako erregai nuklearra edo erradioaktibitate handiko hondakinak prozesatzekoak.
 - irradiatutako erregai nuklearrak edo hondakin erradioaktiboak produkzio-lekutik kanpo aldi baterako pilatzekoak bakarrik.

3.3.- Guztira gutxienez 10 MW-ko potentzia duten 5 aerosorgailu edo gehiagoko parke eolikoak. Beste parke eoliko batetik gehienez 2 km-ra kokaturiko parke eolikoak, betiere batera dituzten magnitudeak kontuan hartuta aurreko mugak berdintzen edo gainditzen badira. Zati batean edo oso-osorik ingurumenaren aldetik kalteberak diren guneeetan kokaturiko parke eolikoak, horien magnitudea edozein dela ere. Arau honen ondorioetarako parke eolikoak energia eolikoaren sektoreko araudian horrela zehaztutako instalazioak izango dira.

Gutxienez hektarea bat okupatzea dakarten energia fotovoltaikoko instalazioak, baldin eta zati batean edo oso-osorik ingurumenaren aldetik kalteberak diren guneeetan badaude. Horren barruan sartuko dira titular beraren edo ezberdinen instalazioak, azalera txikiagoa okupatuta ere, baldin eta beste instalazio fotovoltaiko batekin mugakide badira eta instalazio guztiek batera okupatutako azalera osoa gutxienez hektarea batekoa bada.

Dagoeneko finkaturiko lursail urbanizatueta edo lehendik zeuden eraikinen gainean kokaturiko energia fotovoltaikoko instalazioak salbuetsita daude.

3.4.- Lehen kategoriako energia elektrikoa (gutxienez 100 kV) eta, fluido motako erregai fosila, lurruna eta ur beroa garraiatzeko lineak eraikitzeko proiektuak, betiere gutxienez kilometro bateko luzera badute.

Energia elektrikoko lineak eta eraldaketa-azpiestazioak eraikitzeko proiektuak, zati batean edo oso-osorik ingurumenaren aldetik kalteberak diren guneeetan garatzen dituztenean. Azken kasu horretatik kanpo geldituko dira nagusiki edo bakarrik iltzatzeko metodoaren bidez gauzatutako energia elektrikoko linea txikiak eraikitzea.

3.5.- Lur azpian bilduta gas naturalaren horniketa erregulatzeko instalazioak.

3.6.- Zulaketa geotermiko sakonak.

3.7.- Huila- eta lignito-aglomeratuen fabrikazio industrialerako instalazioak, guztia edo zati bat ingurugiro-zona sentikorretan dagoenean.

4.- Ingurugiroa kudeatzeko azpiegitura-proiektuak.

4.1.- Hondakin erradioaktiboak etengabe bilduta edukitzeko baino ez diren instalazioak.

4.2.- Hondakin arriskutsuak erretzeko industria-instalazio finkoak, bai eta hondakin horiek zabortegetako gordailuen, segurtasun-gordailuen, tratamendu kimikoaren edo kutsatzaileen balizko isuriari dagokionez antzekoa den beste edozein tratamenduren bidez ezabatzekoak ere.

Hondakin arriskutsuak balioztatzeko industria-instalazio finkoak, olio erabilien kudeaketa barne, egunean 10 tona baino gehiagorako gaitasuna badute.

Arriskurik gabeko hondakinak errausteko edo hondakin horiek tratamendu kimikoen bidez edo kutsatzaileen balizko isuriari dagokionez antzekoa den beste edozein tratamenduren bidez ezabatzeko industria-instalazio finkoak, egunean 50 tonatarako edo gehiagorako gaitasuna baldin badute.

Hiri-hondakinatarako zabortegeiak eta arriskurik gabeko industria-hondakinatarako zabortegeiak.

Hondakin geldoetarako zabortegeiak, egunean 10 tona edo gehiago hartzen badute, edo guztira gutxienez 25.000 tonatarako gaitasuna badute edo, muga horiek gainditzen ez badituzte ere, zati batean edo oso-osorik ingurumenaren aldetik kalteberak diren gunetan kokaturik badaude eta gutxienez hektarea bateko azalera okupatzen badute.

5.- Azpiegitura, industria eta nekazaritza, abelazkuntza, basogintza edo nekazaritza-elikagaietarako instalazio edo jardueren proiektuak.

5.1.- Lehen baso-berritzeak, eraldaketa ekologiko negatiborako arrisku handia dagoenean.

5.2.- Zohikatz-erauzketa, guztia edo zati bat ingurugiro-zona sentikorretan egiten denean.

5.3.- 1.000 t/urte baino ahalmen handiagoko hiltegiak, guztia edo zati bat ingurugiro-zona sentikorretan dagoenean.

5.4.- Irina eta pentsu konposatuak fabrikatzeko instalazioak eta arrain-olioa atera eta tratatzekoak, guztia edo zati bat ingurugiro-zona sentikorretan dagoenean.

5.5.- Arrain eta haragi gazituak eta animalia zein landare-produktuak kontserbatzeko instalazioak, guztia edo zati bat ingurugiro-zona sentikorretan dagoenean.

5.6.- Esneki-fabrikak, guztia edo zati bat ingurugiro-zona sentikorretan dagoenean.

5.7.- Alkohola eta alkohol-edariak fabrikatzeko industri instalazioak eta azukre-plantak, guztia edo zati bat ingurugiro-zona sentikorretan dagoenean.

5.8.- Animalien zein landareen koipe eta olioak egiteko instalazioak, guztia edo zati bat ingurugiro-zona sentikorretan dagoenean.

5.9.- Animaliak intentsiboki hazteko instalazioak: hegaztiak eta txerriak haztekoak, honako leku hauek baino gehiago dituztenean:

- a) oilategiko hegaztientzako 40.000 plaza.
- b) umetarako txerrientzako 300 plaza.

5.10.- Genetikaz aldatutako organismoak ingurugiroan nahita askatzeko proiektuak, 90/220/CE Arzteztarauari jarraituz.

5.11.- Arrainen hazkuntza intentsiboa.

6.- Meagintzako proiektuak.

6.1.- Huila, lignittoa eta beste mineralak erauztekoak.

6.2.- Amiantoaren erauzteko instalazioak, amianto bera eta amianto duten produktuak tratatu eta eraldatzekoak. Amianto-zementuko produktuentzat, amaitutako produktuetan 20.000 tona baino gehiagoko produkzioarentzat; marruskadura-materialentzat, amaitutako produktuetan 50 tona baino gehiago, eta amiantoaren beste erabilpenentzat, urteko 200 tona baino gehiagoko erabilpena.

6.3.- Mineral metalikoen erauzketa eta tratamendutik sortutako bitarteko produktu edo produktu antzuak.

6.4.- Haitz eta mineralak erauzteko industriaren gainazaleko instalazioak, guztia edo zati bat ingurugiro-zona sentikorretan dagoenean.

6.5.- Gas naturala eta petrolioa erauzteko instalazioak.

7.- Materia mineraletan oinarrituta produktuak fabrikatzeko diren industriaren proiektuak.

7.1.- Petrolio gordinentzako errefinategiak (petrolio gordinetik labaingarriak baino produzitzen ez dituzten enpresak salbu), eta eskisto bituminosoen ikatzetik egunean gutxienez 500 tona gasifikatzeko eta likidotzeko instalazioak.

7.2.- Koke-fabrikak.

7.3.- Zementugintzarako instalazioak, eta karobiak.

7.4.- Zuntz mineral artifizialak fabrikatzeko instalazioak, guztia edo zati bat ingurugiro-zona sentikorretan dagoenean.

7.5.- Asfalto-plantak, guztia edo zati bat ingurugiro-zona sentikorretan dagoenean.

7.6.- Beiragintzarako instalazioak, beira-zuntza egitekoak barne, guztia edo zati bat ingurugiro-zona sentikorretan dagoenean.

7.7.- Labekatzeko bidezko zeramika-produktugintza, batik bat teilak, adreilu erregogorak, axuleiurak, gresa edo portzelana, guztia edo zati bat ingurugiro-zona sentikorretan dagoenean.

8.- Industria kimikorako instalazio-proiektuak.

8.1.- Instalazio kimiko integratuak, hau da, transformazio kimikoaz funtzionalki elkarri lotutako unitate batzuk elkarren ondoan dituzten substantziak industri mailan fabrikatzeko instalazioak, helburu hauekin erabiltzen direnean:

- 1) oinarrizko produktu kimiko organikoak produzitzeko,
- 2) oinarrizko produktu kimiko inorganikoak produzitzeko,
- 3) fosforoa, nitrogenoa edo potasioa dituzten ongarriak (ongarri simple edo konposatuak) produzitzeko,
- 4) oinarrizko produktu fitosanitarioak eta biozidak produzitzeko,
- 5) farmaziarako oinarrizko produktuak prozesu kimiko edo biologikoaz produzitzeko,
- 6) lehengaiak produzitzeko.

8.2.- Petrolio-produktuak eta produktu petrokimiko edo kimikoak biltzeko instalazioak, gutxienez 200.000 tonako edukiera dutenean.

8.3.- Elastomeroen bidez produktuak fabrikatu eta tratatzeko instalazioak, guztia edo zati bat ingurugiro-zona sentikorretan dagoenean.

8.4.- Bitarteko produktuen eta produktu kimikoen tratamendua.

8.5.- Pestizida-produkzioarako eta farmaziarako produktugintzarako instalazioak, 8.1 puntuan jasotako proiektuak salbu.

8.6.- Margoak eta bernizak, elastomeroak eta peroxidoak egiteko industria-instalazioak. Baina, produktuen artean inolako erreakzio kimikorik sortu gabe, produktu horiek nahastea besterik egiten ez duten instalazioak ez.

9.- Itsaso/lehorreko jabari publikoko jarduerak.

9.1.- Zuzenean edo zeharka natur gunerik ukitzen badute, itsasoaren eta lehorren arteko jabari publikoan egin beharreko obrak, eranskin honetako 1.3 eta 9.2 paragrafoetan jasotakoak ez direnak, baina dikeak, malekoiak eta kai-muturrak zaintzeko eta atzera berriz jasotzeko lanak eta beste babes-obra batzuk kanpo utzita.

Hondartzetan hondarra ugaritzeko obrak, gutxienez 500.000 metro kubiko hondar ekartzeko baldin badira, hondarra erauzteko lanak barne.

Itsasoari lurra jateko lanak.

9.2.- Hustubideak, oliobideak edo itsaspeko gasbideak.

10.- Turismoa eta aisiarako jarduerak

10.1.- Kanpinak, baldin eta hektarea bat edo gehiagoko azalera badute eta zati batean edo oso-osorik ingurumen aldetik kalteberak diren guneeetan badaude.

10.2.- Kanpoan egindako motordun ibilgailuentzako lasterketen eta proben pista eta zirkuitu iraunkorrak, baldin eta hektarea bat edo gehiagoko azalera badute.

10.3.- Suzko armak erabiltzeko tiro-eremuak, baldin eta hektarea bat edo gehiagoko azalera badute eta zati batean edo oso-osorik ingurumenaren aldetik kalteberak diren guneeetan badaude.

10.4.- Golf-zelaiak, baldin eta hektarea bat edo gehiagoko azalera badute eta zati batean edo oso-osorik ingurumen aldetik kalteberak diren guneeetan badaude.

10.5.- Parke tematikoak, hektarea bat edo gehiagoko azalera badute. Parke tematikoak, baldin eta zati batean edo oso-osorik nazioarteko tresnek babestutako guneen barruko hezeguneetan edo Natura 2000 Sareko tokietan jasota badaude.

11.- Industria metalikorako instalazioen proiektuak.

11.1.- Burdingintza-planta integralak.

11.2.- Burdingintza-establezimenduak, galdategiak, forjak, profilaketak eta ijezketak barne, guztia edo zati bat ingurugiro-zona sentikorretan dagoenean.
11.3.- Prozesu metalurgiko, kimiko edo elektrolitiko bidez mineraletatik, kontzentratuetatik edo lehengai sekundarioetatik burdintsu ez diren landu gabeko metalak erazteko instalazioak.
11.4.- Metalen eta plastikozko materialen gaina prozesu elektrolitiko edo kimikoz tratatzeko instalazioak, guztia edo zati bat ingurugiro-zona sentikorretan dagoenean.
11.5.- Mineral metalikoak errausteko eta sinterizatzeko instalazioak, guztia edo zati bat ingurugiro-zona sentikorretan dagoenean.
11.6.- Motoredun ibilgailuen fabrikazioa eta muntaketa eta ibilgailuentzako motoreen fabrikazioa, guztia edo zati bat ingurugiro-zona sentikorretan dagoenean.
11.7.- Untziolak.
11.8.- Hegazkinak egin eta konpontzeko instalazioak, guztia edo zati bat ingurugiro-zona sentikorretan dagoenean.
11.9.- Trenentzako materialaren fabrikazioa, guztia edo zati bat ingurugiro-zona sentikorretan dagoenean.
12.- Ehun-zuntzak garbitu, deskoipeztatu, zuritu eta tindatzeko fabrikak, guztia edo zati bat ingurugiro-zona sentikorretan dagoenean.
13.- Zuntz, partikula eta kontraxafatuzko taulen fabrikak, guztia edo zati bat ingurugiro-zona sentikorretan dagoenean.
14.- Paper-pasta, papera eta kartoia ekoizteko eta zelulosa ekoizteko eta tratatzeko industria-instalazioak.
15.- Larrua ontzeko plantak, guztia edo zati bat ingurugiro-zona sentikorretan dagoenean.
16.- Gasolindegia, guztia edo zati bat ingurugiro-zona sentikorretan dagoenean.

17.- Lurzoru urbanizazinean dauden aparkalekuak, baldin eta 3.000 m²-ko edo gehiagoko azalera badute eta zati batean edo oso-osorik ingurumen aldetik kalteberak diren guneeetan badaude.

18.- Dorreen, antenen edo antzeko beste ekipo batzuen instalazioak, telekomunikazioetara edo seinaleetara edo meteorologia-datuak lortzera eta igortzera zuzendutakoak, baldin eta zati batean edo oso-osorik ingurumenaren aldetik kalteberak diren guneeetan, baita horien sarbideetan ere, kokaturik badaude (otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 51.2 artikulua d) eta e) idatzi-zatiak aplikatuz izendatu dira gune horiek).

19.- Lurzoruaren erabilpeneko aldaketak, zuhaixka edo zuhaitzeko geruza deuseztatzen denean eta interes orokorreko azpiegiturentzat arriskutsua izan daitekeenean. Nolanahi ere, aldaketa horiek 50 ha baino azalera handiagoari eragiten dioten bakoitzean.

20.- Industrialdeak urbanizatzeko egitasmoak, baldin eta hektarea bat edo gehiagoko azalera badute eta zati batean edo oso-osorik ingurumen aldetik kalteberak diren guneeetan badaude.

21.- Bizitegi-zonak edo merkataritza-zonak urbanizatzeko egitasmoak, baldin eta hektarea bat edo gehiagoko azalera badute eta zati batean edo oso-osorik ingurumen aldetik kalteberak diren guneeetan badaude.

Hiri-zonetatik kanpoko urbanizazioen eta hotel-konplexuen egitasmoak eta horiei lotutako eraikuntzak, merkataritza-guneak eta aparkalekuak eraikitzea barne, baldin eta zati batean edo oso-osorik nazioarteko tresnek babestutako guneen barruko hezeguneeetan edo Natura 2000 sareko tokietan badaude.

22.- Azaleraz gutxienez 3.000 m²-koak diren txatar-biltegiak, eta ibilgailuak desegiteko tokiak, baldin eta zati batean edo oso-osorik ingurumenaren aldetik kalteberak diren guneeetan badaude.

Kanpo gelditzen dira portuetan kokaturiko txatar-biltegien jarduerak, estibatze eta desestibatze jarduerekin lotuta.

23.- Motore, turbina eta erreaktoreen proba-lekuak, guztia edo zati bat ingurugiro-zona sentikorretan dagoenean.

24.- Substantzia lehergarriak berreskuratzeko edo ezabatzeko instalazioak, guztia edo zati bat ingurugiro-zona sentikorretan dagoenean.

25.- Aurreko paragrafoetako egitasmoak, baldin eta metodo edo produktu berriak garatzeko edo probatzeko bakarrik edo nagusiki balio badute eta gutxienez 2 urtez erabiltzea aurreikusita badago.

Aurreko lerrokadan aipatutako egitasmo berak, baldin eta bi urte baino gutxiagoz erabiltzea aurreikusita badago, zati batean edo oso-
osorik nazioarteko tresnek babestutako guneen barruko hezeguneetan edo Natura 2000 sareko tokietan jasota badaude.

26.- Eranskin honetan jasotako egitasmo baten edozein aldaketa edo handitze, baldin eta aldaketa edo handitze horrek, berez, eranskin honetan ezarritako mugak betetzen baditu.

Izaera bereko eta toki berean egindako egitasmoak zatikatzeak ez du eragotziko eranskin honetan ezarritako mugak aplikatzea; horretarako, izan ere, kontuan hartutako egitasmo bakoitzaren magnitudeak edo neurriak pilatuko dira.